

MIKROKONTAKIZUN.KATEATUAK



MICRORELATOS.ENCADENADOS

GORLIZKO.ANTZERKI.TALDEA

GRUPO.DE.TEATRO.DE.GORLIZ

-2020-

## MILLENNIALAK ZERO PUNTUAN

Gotzone Butron Kamiruaga

Posta elektronikoa ireki dut. Lanari buruzko mezuen bila nabil baina, azkenaldian, ez dut apenas ezer jasotzen; fakturak eta bankuko jakinarazpenak besterik ez. Antzerki-eskolan izena eman nuenean, banekien ez zela erreza izango hura ogibide izatea, baina millenniala naiz. Aspaldian amaitu ziren bizitza osorako lanak eta kontratu mugagabeak. Sare sozialetan bizi gara, konektatuta gaude, erronkak ditugu gogoko.

Askotan ibili naiz zerbitzari. Terrazatan. Lana nire gustukoa da: jendearekin hitz egin, kopak jarri, mozkortiei euren erretolika entzun... Erakustoki handi horretatik hartzen ditut ideiak antzezlanak idazteko. Hurbileko jendearengandik, pertsona xumeengandik. Horiengandik eta lagunek kontaktzen dizkidaten istorioetatik. Izan ere, horrela sortu nuen Fergus pertsonaia. Bai, agian ikusi duzue, nonbait. Kultur etxeren batean, gaztetxeren batean edo kalean. Askotan antzeztu dut “Bidaiaren amaiera”.

Orain tabernako lana amaitu zait, antzezpenarena ere bai. Etxean nago, mundu birtualean murgilduta, hiperkonektatuta. Bakarturik. Baten batek ”bat bi hiru karabin bon ban” umetako jokoan irteera-marrara bidali baninduen legez.

Komunera noa. Teak beti bidaltzen nau komunera hiru ordu laurdenero edo. Eskuak garbitzen nagoela, ispiluari begiratu diot eta Fergus ikusi dut. Nire kontura barre eginez.

—Aizak, ez nagok txantxetarako.

Tipoa, isilik. Barrez, oraindik ere.

—Zer txorakeria duk hau? Esango al dik?

Bera, barrez. Ni, mutu.

Bera, mutu.

Biok, barrez lehertzen.

—Ulertu didak, memelo hori!

Ohe azpian daukadan maleta zaharrari tira egin eta irekitzen dut. Jaka eta kapela atera eta jantzi, eta maleta eskuan hartzen dut.

Fergus naiz.

Zein da azken geltokiaren hurrengoa?

1

GORLIZKO.ANTZERKI.TALDEA  
GRUPO.DE.TEATRO.DE.GORLIZ

